

BIZIPOZA JAIA DERION

Bizitzeko poza, elkartasuna, auzolana eta euskara, herria josteko hariak

📁 JENDARTEA / amagoia.mujika@gaur8.info

Bizipoza Elkartera bildu diren 33 elkarteetako kide gehienentzat egunerokoa ez da erraza. Gaixotasun bat, egoera bereziren bat, jendartearen begiraturen bat traba bihurtu zaie. Bihar Derion jaia egingo dute; bizipoza, elkartasuna, auzolana eta euskara edozein min apaltzeko moduko botika direla aldarrikatzeko.

BIZIPOZAREN JAIA

Iraila 17

IGANDEA

ARANTZAZU KALEKO OHOLTZAKO GUNEA

10:00

Elkarteen topaketa.

11:00-13:00

Piko-Piko jolasa BERTOKO ZAMUDIO trikitilari taldea eta IRRIVEN LAGUNAK KLUBeko pertsonaiekin batera.

13:00

«Agurra» oholztan. Jarraian TABERNA IBILTARIAko lagunak herrian zehar, eta IRRIVEN LAGUNAK KLUBeko PERTSONAIAK frontoi txikian izango dira elkarteekin.

13:20

KANTARELUX eta LAINOMENDI dantza taldea oholztan.

14:00

PIPERDUN flamenko taldea oholztan.

14:15-15:00

TABERNA IBILTARIAko lagunak oholztaren gunean.

16:00

KALE DOR KAYIKO elkartearen tailerra gunea (kaxoia eta palmak jotzen ikasteko aukera paregabeal).

16:30

ANE ETA PIRATAK PARRANDAN dantzaldia Bizipozako elkarteekin batera oholztan.

17:30

Txokolatada

18:00

Jaiaren amaiera.

KIROLDEGI BARRUKO GUNEA

11:30

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSen «Tipi Tapa Korrika» ikuskizuna.

15:00

KUKUKE antzerki eskolaren dantzaldia.

15:20

URREZKOA SAGARRA (Josu Camara ipuin kontalaria, KUKUBILTXXoren eskutik).

FRONTOIEN GUNEA

Frontoi txikian:

BIZIPOZAKO ELKARTEAK ezagutzeko aukera egun osoan zehar.

Frontoi handian:

14:00etatik 16:00etara bazkaria.

FUTBOL ETA TENIS ZELAIEN GUNEA

- IRRIVEN LAGUNAK KLUBeko puzgarriak.
- BBK Fundazioaren eskutik: Rokodromoa eta ohe elastikoak.
- Derioko AMPAren eskutik tailerrak.

ARANTZAZU KALEKO BEHEKALDEKO GUNEA

- ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAren eskutik: giza-futbolina, futbol-txapa (iturriak), marrazki tailerra, aurpegiak margotzeko gunea...
- GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOAren eskutik tailerrak

Elkarteen elkarteak da Bizipoza Elkarte eta Euskal Herriko izaera bereziko 33 elkarte biltzen ditu bere baitan. Bere leloak garbi agertzen du elkartearen arima: “Munduak guztiontzat behar luke”. Baina, tamalez, inguratzen gaituen munduan beti ez dira kabitzen errealitate guztiak, nahiz eta guztiak mundu horretakoak izan. Hutsune hori ondo ezagutzen dute Bizipoza osatzen duten elkarteek. Askotarikoak dira eta haien beharrek eta minak ere halakoxeak dira, askotarikoak. Horregatik elkartu dira Bizipozaren baitan, indarguneak indartzeko eta ahulguneak ahultzeko.

Tourette sindromea, minbizia, fibrosi kistikoa, bihotzeko kardiopatia, Sanfilipporen sindromea... gaixotasun ugariaren inguruan lan egiten duten elkarteak biltzen dira Bizipozan, eguneroko bizitza zailtzen dieten trabak gutxitzeko elkarlana sustatzeko helburuz. Bestelakoak ere badaude; guraso bananduen elkarteak, Harrera familien elkarteak, Chernobilen Lagunak, Etiopia Utopia Fundazioa edo genero identitatearen inguruko elkarte-

ak kasu. Batzuetan ez baita gaixotasun bat bizitza zailtzen duena, egoera bat eta jendarteak egoera hori begiratzeko duen modua baizik.

Kasu guztietan «bizipoza» da botikarik onena. Gure Señeak elkarteke Luisma Landaluzek nabarmendu duenez, «egoera zaila edo gogorra izanik ere, kalera atera beharra dago. Bizitzaren poza da indarra, motorra, nahiz eta egunero ohetik altxatzean bizitza erraza ez dela konturatu eta trabak garrantzitsuak izan. Bizipoza bizitzaren aurrean dugun jarrera bat da. Bizipoza elkarteak eta hor gauden guztiok hori bultzatzen dugu. Beste mundu bat posible dela defendatu nahi dugu. Sarritan egoera zailen aurrean sufrimendua na-

Pasa den urtean Usurbilen izan zen Bizipoza jaia. Irudian, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen emanaldiaren une bat. Aurten ere pailazo ezagunek ez dute hutsik egingo Derion.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

barmentzen da eta horrek ez dio laguntzen ez pertsonari berari ez ingurukoei ere». Bizitzaren alde baikorraren apologia da, beraz, elkartearen bizkarrezurra. Hortik aurrera, desberdinak izatearen aberastasuna, euskara, elkartasuna eta auzolana dira Bizipozaren zutoinak.

EGUN GUZTIKO JAIA

Bizipozaren baitako elkarteek egunero eta urteko egun guztietan egiten dute bizitzeko poz horren aldarrikapena; batzuetan arrakasta gehiagoz eta bestetan gutxiagoz. Baina urtean behin guztiak elkartu eta beren baloreak kalera ateratzeko ariketa egiten dute Bizipoza jaian. Aurtengo hitzordua bihar dago jarria, Derion.

Egun guztiko festa eskainiko du Bizipozak eta prestaketa lanetan boluntarioen lana «ezinbestekoa» izan dela nabarmendu dute. Biharko hitzorduan ere ez da boluntariorik faltako dena prestatu bezala atera dadin. Jaia- ren helburua «ondo pasatzea» izango dela nabarmendu dute. Eta, bide batez, «bizipoza, elkartasuna, euskara eta auzolana» herri bat eraikitzeko zimendu apartak direla gogoraraztea.

